


Bihotzeko prozesioa

“AKAZIA LORE, ANTXOA URRE” esaerari adi, lagun koadrilatxo bat urtero bildu ohi gara udaberriaren bihotzari gorazarre otorduan. Arrautzetan pasata, antxoa eta sasi-akazia lorea (*Robinia pseudoacacia*), sasoiko bikote onenetakoa da platerean. Ilar (*Pisum sativus*) eta baba (*Vicia faba*) parearen parekoia.

Onenetik onenera dabil gure ahosabaia udaberriaren bihotzean. Bihotz hau sagarrondoak (*Malus x domestica*) mugatzen du bere loraldiarekin. Loratze hau ez da zurtza. Ilara luzeko prozesio baten ikurra da. Gaur, maiatzaren seigarrena, lantokitik etxerako bidean lore prozesio hau ikusi dut: milorria (*Achillea millefolium*), orkidea (*Orchis mascula*), lizarra (*Fraxinus excelsior*), lizar loreduna (*Fraxinus ornus*), isatsa (*Cytisus scoparius*), elorri zuria (*Crataegus sp.*), Indiako gaztainondo zuria eta gorria (*Aesculus hippocastanum* eta *A. x carnea* “Briotii”), zuandorra (*Cornus sanguinea*), horma-bitxilorea (*Erigeron karvinskianus*), intsusa (*Sambucus nigra*), pasmo-belarra (*Anagallis arvensis*), haritza (*Quercus robur*), Paulownia tomentosa, akazia zur-beltza (*Acacia melanoxylon*), Photinia x fraseri, otso-lizarra eta hostazuria (*Sorbus aucuparia* eta *S. x aria*), arrosak (*Rosa sp.*), pitosporoa (*Pittosporum tobira*), sasi-urkitza (*Solanum jasminoides* “Album”), San Juan lorea (*Leucanthemum vulgare*), lihoa (*Linum usitatissimum*), kala (*Zantedeschia aethiopica*), porrua (*Allium porrum*), tipula (*Allium cepa*), tipulina (*Allium schoenoprasum*), gorostia (*Ilex aquifolium*), limaondoa (*Citrus limetta*), limoiondona (*Citrus limon*), laranjondona (*Citrus sinensis*), ilarrondo-koia (*Arum italicum*), gaukarra (*Viburnum opulus*), orburua (*Cynara scolymus*), kuku-belarra (*Aquilegia vulgaris*), zaran-belarra (*Chelidonium majus*), tartikua (*Euphorbia lathyris*), ahozkornoa (*Euphorbia amygdaloides*), hirusta zuria eta gorria (*Trifolium repens* eta *T. pratense*), basabitxilorea (*Bellis perennis*), harrautsia (*Saxifraga hirsuta*), marrubia (*Fragaria vesca*), ostarginbelar horia (*Iris pseudacorus*), apo-



Goian, ezkerrean: horma-bitxilorea (*Erigeron karvinskianus*).

Eskuinean: zaingorria (*Geranium robertianum*). Lerro hauen ondoan, orkidea (*Orchis mascula*).

tissimum), kala (*Zantedeschia aethiopica*), porrua (*Allium porrum*), tipula (*Allium cepa*), tipulina (*Allium schoenoprasum*), gorostia (*Ilex aquifolium*), limaondoa (*Citrus limetta*), limoiondona (*Citrus limon*), laranjondona (*Citrus sinensis*), ilarrondo-koia (*Arum italicum*), gaukarra (*Viburnum opulus*), orburua (*Cynara scolymus*), kuku-belarra (*Aquilegia vulgaris*), zaran-belarra (*Chelidonium majus*), tartikua (*Euphorbia lathyris*), ahozkornoa (*Euphorbia amygdaloides*), hirusta zuria eta gorria (*Trifolium repens* eta *T. pratense*), basabitxilorea (*Bellis perennis*), harrautsia (*Saxifraga hirsuta*), marrubia (*Fragaria vesca*), ostarginbelar horia (*Iris pseudacorus*), apo-



mahatsa (*Tamus communis*), oroilo-re (*Myosotis lamottiana*), borraja (*Borago officinalis*), kuku-lorea (*Lycoris flos-cuculi*), goilora (*Epilobium hirsutum*), Judaren arbola (*Cercis siliquastrum*), kaputxi-na (*Tropaeolum majus*), arbia (*Brassica napus*), zaingorria (*Geranium robertianum*)... ■



30 x 530

Meikleour, Perth and Kinross, Eskozia. Munduko landare hesi handiena dago bertan; 1966az geroztik, *Guinness World Records* liburuan hala jasoa dute. Pagoa, *Fagus sylvatica*, 1745ean aldatua, 30 metro garai eta 530 luze da. Hamar urtez behin inausten dute: lau lagunek sei astean burutzen dute lana. Ikustera joan nahi baduzu, Perthesik Blairgowriera doan A-93 errepeidearen bazterrean dago. Argazkiren bat bidali... ■

EKILORE
Lorezaintza eta loradenda

943 795 546
Elorregi bidea· Arrasate (Gipuzkoa)
v_ekilore@yahoo.es